

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo etxean hartzeagatik ematen diren laguntzen deialdia jasotzen duen 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 510088

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

Dirulaguntzak ematea Donemiliagako udalerrian umeen jaiotza, adopzioa edo etxean hartzea dela-eta, udalerrira osatzen duten herrietan belaunaldi berritzaia ziurtatzeko xedez.

Onuradunak

Umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren amak, aitak, legezko tutoreak edo harrera-familiak (salbuespenez, onartuko da erroldatzean eten bat izatea, baldin eta hiru hilabete baino gutxiagoko iraupena badu).

Betekizunak

– 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

– 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne) Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo etxean hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urte jarraian eraman behar ditu erroldatuta, umea jaio, adoptatu edo etxean hartu aurretik, eta bai berak bai umeak erroldatuta jarraitu behar du beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ondoren.

Salbuespenez, onartuko da umea jaio, adoptatu edo etxean hartu aurreko edo ondoko aldietan eskatzaile eta laguntza-hartzailearen erroldatzean eten bat izatea, baldin eta hiru hilabete gutxiagoko iraupena badu.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udaltzaren 2020ko maiatzaren 13an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 231 480001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da, 2.500,00 euroko zenbatekoarekin. Laguntzaren zenbatekoa 500,00 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Aurkezteko epea 2020ko uztailaren 15ean bukatuko da.

Erdoña, 2020ko ekainaren 10a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO